

IKASTETXEEN AUTONOMIA



XXII. TOPAKETAK

2007-03- 22,23,24 Miramar Jauregia, DONOSTIA

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Ikastetxeen autonomia legeetan
3. SAREAN Elkartearen aurreko hausnarketak, XVIII. Topaketak: Autonomia 1
4. XXII. Topaketak: "Ikastetxeen autonomia"
 - 4.1 Pedagogia arloa
 - 4.2 Antolaketa arloa
 - 4.3 Langileen kudeaketa
 - 4.4 Ekonomi arloa
5. Proposamen orokorrak
6. Labur bilduz
7. Eranskinak
 - XVIII. Topaketen emaitzak
 - XXII. Topaketen prentsa oharra

SARRERA

Martxoaren 22, 23 eta 24an Donostiako Miramar Jauregian SAREAN Elkarteak bere XXII. Topaketak burutu ditu.

Jardunaldi hauen aztergaia kontzeptu korapilatsu baten barruan murgiltzea izan da, "Ikastetxeen autonomia" hain zuzen ere.

Une honetan "autonomia" hitzak berak konotazio eta kutsuz beterik azaltzen da eta orokorrean erakargarria egiten zaigu askatasun desiragarriarekin lotzen delako. Ikastetxeen autonomiari dagokionez galdera asko sortzen zaigu eta foro honek eskeini digun aukera aprobetxatuz erantzun batzuk aurkitzen saiatu gara. Lehengo galdera eztabaidaren oinarria izan da: Zer ulertzen dugu "autonomia" esaten dugunean?

Galdera garrantzitsu honen inguruko eztabaida zabala izan ondoren Joan Estruch jaunak bere hitzaldian emandako definizioa egokia ikusten dugu:

"Ikasleen emaitzen hobekuntza helburu duen Hezkuntza Proiektu bat osatu eta kudeatzeko gaitasun eta ahalmena"

Lan honetan azaltzen diren zalantzak eta egiten diren proposamenak definizio hori oinarritzat hartuta egingo dira.

Topaketetako lana bideratzeko erabilitako prozedura ohikoa izan da, hau da, dugun informazioa zabaldu ondoren ahalik eta partehartze handiagoa lortzeko hiru lan-talde osatu dira eta gidoi baten laguntzaz ikastetxeen autonomia esparruak aztertu dira. Jardunaldiaren azken partean talde txikietan lortutako aportazioak talde handiaren aurrean aurkeztu dira eta proposamenak osatu ondoren onartuta geratu dira.

Jakin Badakigu "ikastetxeen autonomia" gai konplexua dela, batzutan ur handitan sartzea izan daitekeela, inoiz ere area mugikorretatik hurbil egon gaitzkeela baina Eskola Publikoaren garapenak bide horretatik joatea eskatzen du eta beste erronken aurrean izan dugun adorea izateko prest gaudela, beti noski, Administrazioaren borondatea hitzetatik aurrera pasatzen bada eta ikastetxeen errealitatea benetan ezagutu eta ulertu ondoren, prisa gabe baina eten gabe, gauzatzen bada.

Ikastetxeen autonomia legeetan

Ikastetxeen autonomiaz orain asko hitz egiten bada ere, ez da gauza berria eta gure Hezkuntza Sistema arautzen duten legeetan antzinatek zabalik dagoen bidea da:

L.O.G.S.E. - 1990

Ley orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo.

TÍTULO CUARTO: DE LA CALIDAD DE LA ENSEÑANZA

Artículo 57

4. Las Administraciones educativas fomentarán la autonomía pedagógica y organizativa de los centros y favorecerán y estimularán el trabajo en equipo de los profesores.

Artículo 58

1. Los centros docentes estarán dotados de los recursos educativos humanos y materiales necesarios para garantizar una enseñanza de calidad.

2. Los centros públicos dispondrán de autonomía en su gestión económica en los términos establecidos en las leyes.

3. Las Administraciones educativas favorecerán el ejercicio de la función directiva en los centros docentes mediante la adopción de medidas que mejoren la preparación y la actuación de los equipos directivos de dichos centros.

LOPEG - 1.995

Ley organica 9/1995, de 20 de noviembre, de la participacion, la evaluacion y el gobierno de los centros docentes.

Las directrices de la Ley 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, comportan elementos muy innovadores en cuanto a la estructura del sistema educativo y sus etapas y enseñanzas, las nuevas responsabilidades y autonomía de los centros y del profesorado en el desarrollo del currículo, y la exigencia de evaluación del conjunto del sistema.

CAPITULO II

De la autonomía pedagógica organizativa y de gestión de los recursos de los centros educativos

Artículo 5. Autonomía de gestión de los centros docentes.

Los centros dispondrán de autonomía para definir el modelo de gestión organizativa y pedagógica, que deberá concretarse, en cada caso, mediante los correspondientes proyectos educativos, curriculares y, en su caso, normas de funcionamiento.

Artículo 7. Autonomía en la gestión de los recursos económicos en los centros públicos.

1. Los centros docentes públicos que impartan enseñanzas reguladas por la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, dispondrán de autonomía en su gestión económica de acuerdo con lo establecido en la presente Ley, así como en la normativa propia de cada Administración educativa.
2. Las Administraciones educativas podrán delegar en los órganos de gobierno de los centros públicos la adquisición de bienes, contratación de obras, servicios y suministros, con los límites que en la normativa correspondiente se establezcan. El ejercicio de la autonomía de los centros para administrar estos recursos estará sometido a las disposiciones que regulan el proceso de contratación y de realización y justificación del gasto para las Administraciones educativas.
4. Las Administraciones educativas podrán delegar en los órganos de gobierno de los centros públicos las competencias que éstas determinen, responsabilizando a los Directores de la gestión de los recursos materiales, puestos a disposición del centro.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKAREN LEGEA - 1993

V. IDAZPURUA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO IKASTETXEEN AUTONOMIAZ I. ATALBURUA - ERABAKI OROKORRAK

27. atala.

Euskaleskola publikoko ikastetxeek bermatuta dute pedagogia, antolaketa eta kudeaketako autonomia, indarrean dagoen legediaren esparruan eta lege honetan zein berau gara dezaten arauetan oharmandako modu eta neurrietan.

28. atala.

1. Euskal eskola publikoko ikastetxeen autonomia, ikastetxeak epe erdikorako ihardueraren ondorengo eratze-tresnak onartu eta burutzean gauzatzen da. Hona eratze-tresnok:

- a) Ikastetxearen hezkuntza-proiektua.*
- b) Ikastetxearen ikasketa proiektua.*
- b) Antolakuntza eta iharduera-araudia.*
- d) Kudeaketa proiektua.*

2.- Aurreko atalkian adierazitako eratze-tresnetan jasotako zehaztapenak urtez urte gauzatzea ikastetxearen egitekoa izango da, horretarako ikastetxearen urteko plana onartu beharko duela.

II. ATALBURUA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOKO IKASTETXEEN ANTOLAKETA AUTONOMIA LEHENENGO SAILA - ANTOLAKETA AUTONOMIAZ

29. atala.

1. Ikastetxe bakoitzak, aitortua duen autonomiaz baliatuz eta lege honen 1.4 atalean adierazten diren arauen esparruan, bere antolakuntza eta iharduera-araudia egin eta onartuko ditu. Araudi horretan, bertako organoen osakera, aginpideak eta hautatzeko modua jasoko dira, eta baita ikastetxearen iharduera onerako eta ikasketakintzen

zein administrazio eta ekonomi jaurbidearen garapen egokia bermatzeko beharrezko jo daitezten erabaki guztiak ere.

III. ATALBURUA - PEDAGOGIAZKO AUTONOMIAZ

45. atala.

Euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeei pedagogiazko autonomia aitortzen zaie. Ikastetxeok indarrean dagoen legediaren esparruan, legedi horrek ezarritako gutxieneko programen esparruan eta baliabide erabilgarrien mugapean, hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua mamitzeko beharrezko erabakiak hartu ahal izango dituzte. Erabakiok ezin izango dute hezkuntza-elkarteko inorenganako bereizkeriarik eragin.

IV. ATALBURUA - KUDEAKETA AUTONOMIAZ

54 atala.

I. Ikastetxeek kalitatezko irakaskuntza bermatzeko behar diren hezkuntza-, giza eta gauza «baliabideak izango dituzte, mailaren, tamainaren eta gainontzeko gorabeheren arabera. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakaskuntza-maila eta mota bakoitzean izan beharreko irakasle/gela erlazioa eta eskola-gela bakoitzari dagozkion gainerako baliabideak ezarriko ditu, Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzia entzun ondoren.

2.- Aurreko atalkian adierazitako baliabideez gain, diru-kopuru osagarriak eman ahal izango zaizkie ikastetxeei, 10. Atalean araututako konpentsazio fondoaren kargu. BestaIde, hezkuntza-administrazioak diru kopuru handiagoak eman ahal izango dizkie ikastetxeei, hezkuntza-proiektuetan eta eskabiderik egin dezaten ikastetxeen urteko planetan oinarrituta, aurrekontuan horretarako jar daitezten kontuen kargu. .

55. atala.

1. Lege honek eragiten dien herri ikastetxeek beren baliabideak kudeatzeko autonomia izango dute, atalburu honetan ezarritakoaren arabera. Autonomia horren adierazgarri eta bai eskola elkarteak bai administrazioak ikastetxeen ekonomi iharduera errazago kontrolatu ahal izan dezaten, ikastetxe bakoitzak bere kudeaketa proiektua onartuko du. Kudeaketa proiektuan ikastetxeek beren hezkuntza-proiektua gauzatzeko dituzten baliabideen antolaketa eta erabilpena adierazten da.

BIGARREN SAILA - EKONOMI ETA DIRUBIDETARAKO AUTONOMIAZ

56. atala.

I. Kudeaketa proiektuan eta urteko kudeaketa-egitaraua jasotako aurrikuspenen arabera, herri ikastetxe guztiek beren diru baliabideak kudeatzeko ahalmena izango dute.

2.- Urteko kudeaketa-egitarauaren aurrikuspenetan ikastetxearen beraren aurrekontua azalduko da; bertan, iharduera gastuak eta araudi bidez ezarritako hornikuntza lanek nahiz inbertsioek eragindako gastuak jasoko dira, eta baita gastu horiei aurre egiteko baliabideak ere.

V. ATALBURUA - LANGILE KUDEAKETAZKO AGINPIDEEZ

66. atala.

1. Herri-ikastetxearen ordezkaritza-organo gorenak ikastetxeko langile-zerrenda diseinatuko du, beti ere ikastetxearen hezkuntza-proiektuekin, hezkuntza-administrazioak finkatutako gutxienekoekin eta aurrekontuko baliabide erabilgarriekin bat etorriz. Hezkuntza-administrazioak herri ikastetxeei dagokien langilegoa jarriko du, ikastetxeek aurkeztutako langile-zerrendaren diseinua kontutan izanik.

2.- Ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektuekin bat, ikastetxeko zenbait lanpostutarako bete beharreko titulazioko eta lanbide gaitasuneko eskakizunak zehaztu ahal izango dituzte.

3.- Herri-ikastetxeetako gobernu-organoek beren ikastetxeko lanpostuak betetzean parte hartu ahal izateko beharrezko neurriak araudi bidez hartuko dira.

LOCE - 2002

25037 LEY ORGÁNICA 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación.

Artículo 67. Autonomía de los centros.

1. Los centros docentes dispondrán de la necesaria autonomía pedagógica, organizativa y de gestión económica para favorecer la mejora continua de la educación.

Las Administraciones educativas, en el ámbito de sus competencias, fomentarán esta autonomía y estimularán el trabajo en equipo de los profesores.

2. Los centros docentes estarán dotados del personal y de los recursos educativos y materiales necesarios para garantizar una enseñanza de calidad.

3. El ejercicio de la autonomía pedagógica, organizativa y de gestión de los centros irá acompañada del desarrollo de mecanismos de responsabilidad y, en particular, de procedimientos de evaluación, tanto externa como interna, en el marco de lo dispuesto en el título VI de la presente Ley, que sirvan de estímulo y permitan orientar convenientemente los procesos de mejora.

Artículo 68. Autonomía pedagógica.

1. La autonomía pedagógica, con carácter general, se concretará mediante las programaciones didácticas, planes de acción tutorial y planes de orientación académica y profesional y, en todo caso, mediante proyectos educativos.

2. Los centros docentes, dentro del marco general que establezcan las Administraciones educativas, elaborarán el proyecto educativo en el que se fijarán los objetivos y las prioridades educativas, así como los procedimientos de actuación. Para la elaboración de dicho proyecto deberá tenerse en consideración las características del centro y de su entorno escolar, así como las necesidades educativas de los alumnos.

8. Los equipos de profesores de los centros públicos tendrán autonomía para elegir, de entre los que se adapten al currículo normativamente establecido, los libros de texto y demás materiales curriculares que hayan de usarse en cada ciclo o curso y en cada área, asignatura o módulo.

Artículo 69. Autonomía organizativa.

1. La autonomía organizativa se concretará en la programación general anual y en los reglamentos de régimen interior. La programación general anual será elaborada por el equipo directivo, previo informe del claustro de profesores.

Artículo 70. Autonomía de gestión económica.

1. Los centros docentes públicos que impartan enseñanzas reguladas por la presente Ley dispondrán de autonomía en su gestión económica, de acuerdo con lo establecido en las normas vigentes.

LOE - 2006

CAPÍTULO II

Autonomía de los centros

Artículo 120. Disposiciones generales.

1. Los centros dispondrán de autonomía pedagógica, de organización y de gestión en el marco de la legislación vigente y en los términos recogidos en la presente Ley y en las normas que la desarrollen.
2. Los centros docentes dispondrán de autonomía para elaborar, aprobar y ejecutar un proyecto educativo y un proyecto de gestión, así como las normas de organización y funcionamiento del centro.
3. Las Administraciones educativas favorecerán la autonomía de los centros de forma que sus recursos económicos, materiales y humanos puedan adecuarse a los planes de trabajo y organización que elaboren, una vez que sean convenientemente evaluados y valorados.
4. Los centros, en el ejercicio de su autonomía, pueden adoptar experimentaciones, planes de trabajo, formas de organización o ampliación del horario escolar en los términos que establezcan las Administraciones educativas, sin que, en ningún caso, se impongan aportaciones a las familias ni exigencias para las Administraciones educativas.
5. Cuando estas experimentaciones, planes de trabajo o formas de organización puedan afectar a la obtención de títulos académicos o profesionales, deberán ser autorizados expresamente por el Gobierno.

Artículo 123. Proyecto de gestión de los centros públicos.

1. Los centros públicos que impartan enseñanzas reguladas por la presente Ley dispondrán de autonomía en su gestión económica de acuerdo con la normativa establecida en la presente Ley así como en la que determine cada Administración educativa.
2. Las Administraciones educativas podrán delegar en los órganos de gobierno de los centros públicos la adquisición de bienes, contratación de obras, servicios y suministros, de acuerdo con el Real Decreto Legislativo 2/2000, de 16 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, y con los límites que en la normativa correspondiente se fijen. El ejercicio de la autonomía de los centros para administrar estos recursos estará sometido a las disposiciones que las Administraciones educativas establezcan para regular el proceso de contratación, de realización y de justificación del gasto.
3. Para el cumplimiento de sus proyectos educativos, los centros públicos podrán formular requisitos de titulación y capacitación profesional respecto de determinados puestos de trabajo del centro, de acuerdo con las condiciones que establezcan las Administraciones educativas.
4. Los centros públicos expresarán la ordenación y utilización de sus recursos, tanto materiales como humanos, a través de la elaboración de su proyecto de gestión, en los términos que regulen las Administraciones educativas.
5. Las Administraciones educativas podrán delegar en los órganos de gobierno de los centros públicos las competencias que determinen, incluidas las relativas a gestión de personal, responsabilizando a los directores de la gestión de los recursos puestos a disposición del centro.

Artículo 124. Normas de organización y funcionamiento.

- 1. Los centros docentes elaborarán sus normas de organización y funcionamiento, que deberán incluir las que garanticen el cumplimiento del plan de convivencia.*
- 2. Las Administraciones educativas facilitarán que los centros, en el marco de su autonomía, puedan elaborar sus propias normas de organización y funcionamiento.*

Ukaezina da urte luze hauetan aldaketak, eta nola ez, hobekuntzak ere egon direla Eskola Publikoaren autonomia esparruan, baina era berean salatu behar dugu azken urteotan ez dela inolako aurrerapenik igerri.

Horretarako arrazoiak asko eta anitzak izanda, badira gure ikuspuntutik nagusi diren batzuk:

- Administrazioak baliabideak kudeatzeko erabiltzen duen sistema. Ikastetxeek proiektua osatu dezakete baina baliabideen atala ikutu barik, markatutako ratioak Hezkuntza Sailaren plangintza atalaren jaun ta jabe dira.
- Ikastetxeen Zuzendaritzak garrantzi handia dauka autonomiaren garapenean, egonkortasunak etorkizunerako proiektuak martxan jartzeko eta bideratzeko aukera ematen baitu; gaur egungo datuek esanten digute Erkidegoan Zuzendaritzen %59 a Administrazioak zuzenean izendatuta dagoela. Arazo larri hau konpontzen ez den bitartean ez dugu uste egon daitekeenik ikastetxeen aldetik autonomia maila garatzeko proposamen askorik.

"Ikastetxeen autonomia" ez da hezkuntza arazoan salbatzaile, ezin da derrigorrez ezarri eta ikastetxe bakoitzak erabaki behar du une bakoitzean norainoko gaitasuna duen bere eguneroko praktika autonomia esparru handiagoren barruan diseinatzeko eta martxan jartzeko.

XXII. Topaketetan parte hatu dutenen artean argi dago autonomiaren eskalan aurreratzeak erantzukizunaren handitzea dakarrela, autonomia berez ez daukala zentzurik proiektuen garapenerako bidea ez bada eta ebaluazio plan serio eta zabalaren ondorioz aregotu daitekeela.

Gehiengoaren iritziz, arlo batzuetan aldiz, ez da inolako autonomiarik egon behar, hala nola ikasleak aukeratzeko.

3. - SAREAN Elkartearen aurreko hausnarketak

Esan bezala, SAREAN Elkartek Ikastetxeen Autonomiari buruz foro desberdinetan hausnarketa egin du. Azpimarratzekoa da XVIII. Topaketetan egindakoa, hori izan baita oraingoaren abiapuntua.

Jardunaldi horien ondoren osatu zen txostena helbide honetan ikus daiteke http://www.sarean.net/marko_haundia.htm eta adostutako eskakizun nagusiak hedabideetara bidalitako prentsa-oharreen azaltzen dira:

<<Ikastetxeok autonomia handiagoa behar dugu, beti ere ekitatea zainduz>>

Honetaz, gaur egun ikastetxeek daukaten autonomia maila sumatzen duten beharra baino askoz txikiagoa dela adostu dute partehartzaileek. Beharrak lau arloetan daude, neurri desberdinetan: ekonomi eta azpiegituretan, antolamenduan, pedagogikoan eta langileen kudeaketan. Gabeziarik handiena azken honetan dago, baina arlo pedagogikoan ere behar aipagarriak nabaritzen dira proiektuak garatu ahal izateko baliabideen alorrean. Ikastetxearen proiektuak dira, hala hezkuntza proiektua nola urteko plana eta zuzendaritza proiektuak, eskola eta ikastolak engeiatzen dituzten plangintza tresnak, eta hauei egoki erantzun behar die Administrazioak.

Azpiegituren atalean, azaldu behar da Haur eta Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoaren eraikinak udal jabetzakoak direla. Hauetan egin behar izaten diren konponketa eta egokitzapen lanak, tamainaren arabera hiru ataletan sailka daitezke: handiak, ertainak eta txikiak.

Obra handiak direnean, orokorrean, Hezkuntza Sailak hartzen du ardura. Ertainak eta txikiak direnean, ordea, esan daiteke udal gehienek ere parte hartzen dutela, egoitzen matenimendua haiei baitagokie. Prozesu horietan, ordea, oso gutxitan jasotzen da ikastetxearen iritzia. Ez dago inplikaturako alde guztiok bat egitera eramango dituen protokolorik, eta horrelako zerbaiten beharra badago. Izan ere, eskoletan obrak egin behar direnean beharrezkoa da esparru teknikoan ari direnek ikastetxearekin harreman estua mantentzea eskola kidegoaren beharrak, nahiak eta iritziak ikuspegi teknikoarekin uztartu ahal izateko.

Egoitza berriak eraikitzerakoan ere bada zaindu beharreko beste aspektu bat: gutxieneko baldintzak 1537/2003 Errege Dekretuak zehazten ditu. Hau 1991ko beste baten moldaketa da, baina aldaketa gutxi batzuk baino ez ditu sartzen. Esan beharrik ere ez dago eskolari azken hamabost urteotan sortu zaizkion premiei aurre egiteko gaurkotze nabarmenagoa behar dutela gutxieneko neurriok. Adibidez, hizkuntzetarako berariazko gelak edo ikasleen behar berezi eta laguntzarako tokiak.

Baliabide ekonomikoen alorrean, ikastetxeetan ez da ezagutzen diru banaketarako erabiltzen diren moduluak zertan oinarritzen diren eta nola erabakitzen diren. Alderdi honek argitaratze handiagoa izan beharko luke,

hezkuntza esparruko diruen publikotasuna zabaltze aldera. Bestalde, onartezina da hornidura enpresen homologazio sistemak ezartzen duen muga, zeinen eraginez derrigorrez saltzaile homologatu jakin batzuei soilik eros dakiekeen. Adibidez, informatika alorrean edo eskola altzarrietan hori gertatzen da.

Autonomiaren zentzu zabalenari so, ikastetxeetan eskuduntza maila zabalagoa behar dela aldarrikatzearekin batera, ekitatea ziurtatu behar dela ikusten da. Hau da, ikastetxeek ematen duten zerbitzuaren kalitateak gutxieneko batzuk izan behar ditu guztiontzat eta era berean zaindu aukera berdintasuna eta bakoitzak desberdin edo berariazko izateko daukan eskubidea.

Politikarien ahotan askotan entzuten bada ere, azken legealdian ez da aurrera pausorik eman ikastetxeen eskuduntzak areagotzeko. Are gehiago, azken urteetan Hezkuntza Administrazioak ikastetxe eta sistemaren kudeaketarako eratu dituen programa informatiko berriek, alde batetik asko laguntzen badute ere, beste eragozpen bat erantsi diote ikastetxeen egiteko ahalmenari: sarri askotan programek berek mugatzen dute ikastetxearen ekiteko ahalmena, ezinezkoa baita programa batek salbuespen egoerak aurrikustea. Alabaina, beharrezkoa da malgutasun maila bat, beti ere justifikatu eta kontrolatua, egoera partikularrei dagokien erantzuna eman ahal izateko. Adibidez, irakasle ordezkioak eskatzerakoan espezializazio bat beste batez trukitzea.

Bide luze bezain beharrezkoa geratzen da, non Administrazioak zinezko apustua egin beharko duen. Helburua: zerbitzu publikorik kalitatezkoena emate jarraitzea. Ikastetxeetan horretan ari gara eta hala antzematen du euskal gizarteak; hori adierazten du behintzat galdetu zaionean.

Lan hau 2005eko maiatzean burutu zen eta XXII. Topaketetan, 2007ko martxoan gaia arlo guztietan berraztertuta da. Hurrengo puntuan gaur egun ikastetxeetan dugun autonomia atal bakoitzari egindako balorazio eta proposamenak agertzen dira eta segituan konturatzen gara bi urte pasa arren, burua lehengo lepotik dagoela.

4. - XXII. Topaketak

XVIII. Topaketetan egindako hausnarketaren jarraipena da orain gauzatu dena. Pasa den denborak ez du ikastetxeentzat eskuduntzen arloan hobekuntzarik ekarri, bai ordea zeregin eta behar berriak.

Topaketak Eskola Publikoaren esparruko erakunde eta lantalde guztiei zabalik dauden Jardunaldiak dira: partaideak, beraz, gehiengo handi baten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ordezkariak badira ere, Guraso Elkarteetako ordezkari, Bigarren Hezkuntza eta Unibertsitateko irakasle, Laguntza Zerbitzuko arduradun eta Sindikatuen ordezkariak ere hartzen dute parte. Denon iritziekin eratzen dira onartzen diren proposamenak.

Begi bistan dago ikastetxe guztien premiak eta beharrak ez direla berdinak eta lan honetan egiten diren proposamenak ulertze aldera, XXII. Topaketa hauetan parte hartu duten ikastetxeen ezaugarri batzuk ematea interesgarria iruditzen zaigu. Datuak jasotzeko fitxa bat sartu zen partaideei eman zitzaien dokumentazio karpetan eta erantzun zutenen datuak hauek dira:

	IKASTETXEAK 27							
	Lurraldea	Partaideak	Ikastetxearen ikasle kopurua				Ereduak	
< 200			200 - 400	400 - 600	> 600	D	BD	AD
ARABA	5	-	4	1	-	2	3	-
BIZKAIA	8	-	4	1	3	4	3	1
GIPUZKOA	14	1	4	5	4	12	2	-

Ikastetxeen autonomiak dituen lau atal nagusiak aztertzeko gaur eguneko egoera eta pertzepzioa hartu ziren abiapuntu bezala. Horretarako puntuazio numerikoa eta proposamenak jasotzen zituen fitxa bete zuen partaide bakoitzak.

Gaiaren konplexotasunean galtzeko arriskua ekiditzeko eztabaida galdera nagusi hauen inguruan planteatu zen:

- Zer daukagu ikastetxeetan gaur egun?
- Autonomia handiagoa behar al dugu arlo honetan?
- Zertarako?
- Zer egin dezakegu ikastetxeetan?
- Zer egin beharko luke Administrazioak?

Parte hartzea errezteko hiru lan-talde txikitik bideratu zen eztabaida.

4.1 - PEDAGOGIA ARLOKO AUTONOMIA

ATALA	BALORAZIO NUMERIKOA				ERANTZUN GABE
	NAHIKOA	HOBETU BEHAR			
	5	4	2	1	
Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua	5	25	5	-	2
Ikastetxeko Curriculum Proiektua	2	26	4	1	2
Urteko Plana	5	25	5	-	2
Formakuntza Plana	2	15	17	-	3
Arloen ordu kopurua	-	6	19	9	3

Bloke honetako arloei emandako puntuazioaren arabera ikastetxeen autonomia maila beherantzako progresioan mugitzen da asmoetatik praktikara goazen heinean. Ikastetxeko dokumentu nagusiak egiteko ez dago muga handirik eta bakoitzak bere proiektua proposatu ondoren onarpena jaso dezake.

Errealitatera hurbiltzen garen neurrian autonomia handiagoaren beharra sumatzen da, Formakuntza Planetik hasi eta zer esanik ez, proiektuak gauzatzeko momentuan, ikasleekin zuzenean aritu behar danean.

Aztertutako atalen inguruan egun ikastetxeetan dagoen pertzepzioa azaltzen da eta horretan oinarrituta bi motatako proposamenak:

- Ikastetxeetan egin daitekeena
- Administrazioak egin beharko lukeena

4.1.1- Ikastetxeko dokumentuak

- Ikastetxeko dokumentu nagusiak (Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua, AIA-ROF, Urteko Plana...) zutabeak dira ikastetxearen autonomia garatzeko baina erabilgarriak behar dute izan, bizirik mantendu behar dira. Horretarako ikastetxeetan eztabaidarako denbora eduki behar dugu eta gero denon interesak biltzeko gaitasun eta tresna egokiak.
- Proiektuak egiteko autonomia dexente dago baina arazoa gero dator, proiektuak aurrera eramateko baliabide gutxi dagoelako.
- Era berean ulertu behar dugu autonomiaren garapenak Eskola Komunitate osoaren erabakia behar duela izan, ez irakasleena bakarrik.
- Memoriak garrantzi handia du hobekuntzak egiteko.
- Ebaluazioaren beharra argi ikusten da, gai honetan urrats berriak emateko.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Dokumentuak egiteko prozedura diseinatu eta jarraitu.
- Eskola Komunitate osoaren partaidetza izateko bideak ireki.
- Denon interesak bildu.
- Dokumentu erabilgarriak egin.
- Dokumentuak berrikusteko datak zehaztu.
- Urteko memorian egindako balorazioa eta proposamenak hobekuntzak egiteko erabili.
- Ikasleen emaitzak neurtu eta hobekuntzak proposatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Irakasleek eztabaidarako behar duten denbora kontuan hartu.
- Dokumentuen ereduak diseinatu ikastetxeetako lana errezteko.
- Jarraipena egin eta koherentzia ziurtatu.
- Memoriak ezagutu.
- Ebaluazioa egin.

4.1.2- Formakuntza Plana

- Formakuntzara Hezkuntza Sailak dedikatzen duen aurrekontua ez da nahikoa, are gehiago, azken urteotan gutxitu egin da.
- Formakuntza planak erlazio zuzena eduki behar du ikastetxean definitzen diren proiektuekin.
- Gaur egun markatzen diren lerro nagusien barruan esparru zabala badago ere, proposamen bereziei irekitzea egokia ikusten da.
- Ordutegi barruko formakuntza derrigorrezkoa izan beharko luke.
- Egindako formakuntzaren ebaluazio serioa egin behar da.
- Orain dagoen formakuntza pertsonalaren aukera interesgarria da, liberazioarekin edo ordutegitik kanpo, baina ordutegi eta lekuen eskaintza zabaldu behar da, posible den neurrian gertutasuna lortzeko.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Formakuntza Plana ikastetxeen beharrei lotuta planteatzea.
- Irakasle guztiek parte hartu.
- Irakasleen konpromisua praktikara eramatea.
- Egindako formakuntzaren autoebaluazioa egin.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Formakuntzari baliabide gehiago dedikatu.
- Lerro nagusietatik aparte proposamen bereziak egiteko aukera ematea.
- Ordutegi barruko formakuntza derrigortzea.
- Formakuntza Planaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Formakuntza pertsonala mantendu baina leku eta ordutegia aproposak jarritz.
- Erronka bereziei aurre egiteko formakuntza, programa berriak martxan jarri baino lehenago antolatzea.

4.1.3- Arloen ordu kopurua

- Egokia ikusten da ordu kopuru minimoa markatuta egotea, arloetako gutxiengo maila bermatzeko. Ondoren ikastetxeak espazio propioa behar du bere ezaugarrien arabera banaketa egiteko; gaur egun dagoen uniformitateak egoera bakoitzari dagokion erantzuna ematea galerazten du. Markatzen den ordu kopurua eta autonomiaz hitz egitea nolabaiteko kontraesana da.
- Eskola Publikoaren laiotasuna aldarrikatzen dugu, beraz, erlijio konfesionalari eskaintzen zaion denbora sobran ikusten dugu.
- Hizkuntzen kasuan ezinbestekoa da ingurua kontuan hartzea curriculumak markatzen denean eta baliabideak banatzen direnean.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ikastetxearen ezaugarriak definitu.
- Ezaugarrietara egokitzen den proposamena egin.
- Onartutako proposamena garatu.
- Hizkuntza Proiektua egiteko behar diren eztabaidak egitea, proiektua gauzatu eta garatzea.
- Barneko ebaluazioa egin, emaitzak aztertu eta jarraibideak proposatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ikastetxe eta zonalde bakoitzaren ezaugarriak ondo ezagutu.
- Ikastetxeak egiten duen proposamena aztertu eta onartua izateko bidea zabaltu.

- Onartutako proposamenak aurrera eramatea ahalbidetu beharrezkoak diren baliabideak jarritz.
- Hiru hizkuntzetan ematen diren emaitzak ebaluatu eta bakoitzari dagozkion helburuak kontuan hartuz, ikastetxeekin behar diren zuzenketak egin.
- Hizkuntzen trataera plana egiteko, ikastetxearen inguru sozioekonomikoa arreta bereziz aztertu eta kontuan hartu baliabideak banatzeko.
- Planaren ebaluazio serioa egin.

4.2 - ANTOLAKETA ARLOKO AUTONOMIA

ATALA	BALORAZIO NUMERIKOA				ERANTZUN GABE
	NAHIKOA		HOBETU	BEHAR	
	5	4	2	1	
Ikastetxeko ordutegia	2	10	21	1	3
Ikastetxeko egutegia	5	16	12	4	-
Ikasleen taldekatzea	3	22	9	1	2
Irakasleen lan banaketa	-	16	14	4	3
Ikastetxeko irakasle ratioa	-	3	16	15	3
AIA-ROF	4	15	5	1	12

Ikastetxearen antolaketa egokia egiteko dugun autonomia mailari emandako ebaluazio numerikoa aztertzen dugunean ikusten dugu berriro eskakizunak praktikari dagokion alorrean egiten direla.

Hezkuntza Sailak jarritako arauekin erlazionatzen diren arloak, egutegia, ikasleen taldekatzea edo/eta irakasleen lan banaketa eta AIA orokorrean onartuta daude eta ez dute aldaketa handiren beharrik.

Ikasleekin zuzenean zerikusia duten ataletan aldiz, autonomia gehiago izatearen behar handia ikusten da, hau da, ordutegiaren banaketa eta ikaslek behar duten arreta emateko ratioak erabakitzerakoan.

4.2.1 - Ikastetxeko ordutegia

- Gaur egungo ordutegiak ez du aukerarik ematen behar berri batzuei erantzuteko. Ikastetxearen ingurua eta gurasoen eskakizuna aztertu ondoren ordutegia egokitzeko edo aldatzeko malgutasun faltarekin egiten dugu topo.
- Ekitateaz asko hitz egiten da baina gero uniformitateaz jokatzera behartuta gaude.

- Une honetan autobus enpresek askotan ordutegia baldintzatzen dute.
- Ikastetxean antolatzen diren jai edo jardunaldi bereziek eskatzen duten ordutegi aldaketa egiteko, zailtasunak daude.
- Egun, ekintza berezi batzuk antolatzeko irakasleen ordutegi unifikatua oztopoa da; malgutasunez jokatzuz eskaintza hobea egin daiteke.
- Bigarren Hezkuntzan dauden kategoria bereberko kideekin konparatuz, egoera diskriminatorioak jasan behar ditugun Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek, hala nola formakuntza eguna ostirala izatea edo goizeko lanaldia edukitzeko posibilitatea (haiek bai, guk ez).

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Gurasoen eskaerak jaso eta aztertu.
- Erantzun egokiak emateko plangintza aurkeztu Administrazioaren aurrean.
- Autobusa konpartitzen duten ikastetxeen artean ordutegia adostu.
- Ordutegian aldaketa puntualak proposatzeko OOGren onespenerekin kontatu.
- Ekintza osagarri batzuk egiteko irakasle batzuekin ordutegi malguak adostu eta antolatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ikastetxeko arduradunen proposamenak jaso eta kontuan hartu.
- Baliabideak jarri.
- Ikastetxeen beharrak ikusi ondoren, malgutasunez jokatu.
- OOGren onespenerekin aurkezten diren ordutegi aldaketak onartu.
- Udalekin hitzarmenak egin ordutegiaren luzapenak egin ahal izateko (goizeko edo arratsaldeko zaintzak)
- Ikastetxearen proiektuak hala justifikatzen badu, irakasle batzuen ordutegi malgua onartu.
- Kategoria bereko langileen artean dauden egoera diskriminatiboekin amaitu.

4.2.2 - Ikastetxeko egutegia

- Egutegia proposatzeko aukera dagoen arren, oso arau estuen barruan mugitu behar; jai batzuk aldatzeko debekua ez da ulertzen, adibidez irakasleen eguna epe konkretuaren barruan ospatzeko derrigortasuna.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Egutegiaren proposamena Eskola Komunitatea osatzen duten kolektiboekin adostu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- OOGren onespenezekin aurkezten diren aldakuntza eskaerak onartu.
- Arau orokorrak gutxitu (klaseko lehen eta azken egunak eta orduak zehaztu) eta malgutasunez jokatu.

4.2.3 - Ikasleen taldekatzea

- Ikasleen taldekatzea zehaztuta dago eta batzutan errealitateak beste antolaketa bat eskatzen digu baina ez dago horretarako baliabiderik; taldeak oso handiak dira eta bikoizketak egiteko irakasleak eta espazioak falta dira.
- Ikasle berriak taldeetan kokatzeko dagoen irizpidea adina da baina aniztasunaren trataera definitua dagoenean beste irizpideekin kontatzea egokia iruditzen zaigu.
- DAE-ren baliotasuna zalantzan jartzen da, errealitateari erreparatzen ez diolako bereziki Eskola Txikien kasuan.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ikaslegoaren ezaugarriak oinarri bezala hartuz, eta emaitza hobekitzeko helburuarekin taldekatze berriak proposatu.
- Ikastetxe mailan aniztasunaren trataera definituta edukitzea.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Taldekatze berezien proposamena egiten duen ikastetxea ezagutu eta aztertu ondoren, proiektua ahalbidetu baliabideak jartzen.
- Eskolatze prozesua hasita duten ikasle berrientzat proposatzen den taldekatzea onartu.

- Eskolatu gabe heltzen diren ikasleentzat programa bereziak ezarri baliabideekin lotuta.

4.2.4 - Irakasleen lan banaketa

- Izendapenen estutasuna askotan kaltegarria da ikastetxeko plana osatzeko. Habilitazioak adskripzioak baino pisu handiagoa izateak joku gehiago emango luke.
- Ikastetxearen Proiektua aurrera eramateko denon inplikazioa beharrezkoa da baina ez da beti lortzen; gure ustez inplikazioak errekonozimentua eraman beharko luke itsatsita.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ikasturte hasieran adosten diren aldaketen berri Administrazioari lehenbailehen jakinarazi, kontuan har ditzaten.
- Irakasleen interes pertsonalak gainditu ikastetxeko proiektuaren mesedean.
- Klaustroan mobilitatea ahalbidetzeko formulak adostu.
- Klaustroak erantzukizunez jokatu arduren banaketan.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Izendapenak egiteko prozesuaren estutasuna gainditu eta ikastetxeen beharren arabera aldaketa justifikatuak onartu.
- Ardurak hartzen dutenentzak pizgarriak ezartzea.

4.2.5 - Ikastetxeko irakasle ratioa

- Ratioak formula fijoan arabera egiten dira eta hau, agian, abiapuntu ona da baina ekitatea eta inplikazioa zaindu behar baditugu, beste datu batzuk ere hartu behar dira kontuan baliabideen banaketa egitean:
 - Ikastetxea eta ikasle/familiaren ezaugarriak
 - Ikastetxean garatzen diren proiektuak
 - Ikastetxeei egiten zaizkien eskakizun berriak: IKT, Arriskuen prebentziorako arduraduna, bizikidetza, normalkuntza plana...
 - Ikasturtean zehar heltzen diren ikasleak
 - Talde handiak dituzten ikastetxeak

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Egiten diren eskakizunak proiektuekin justifikatu.
- Proiektuen ebaluazioa egin.
- Ikastetxea eta inguruaren deskripzioa datuetan oinarrituta azaltzea.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Baliabideak gehitu.
- Baliabideak banatzeko "kafe denontzat" formulatik urrundu, lehenengo ikastetxeak ezagutzen eta gero beharrak eta proiektuen araberrako baliabideak jartzen.
- Proiektuen jarraipena egin.
- Behar berriak jartzearekin batera baliabideak eman.
- Talde handiko geletarako (24/25 ikasle) apoioak gehitu.

4.2.6 - AIA-ROF

- Dokumentu hau ikastetxearen ezaugarrien arabera eta eskola komunitate osoaren partaidetzarekin egiten da eta horrek balio berezia ematen dio, baina disziplina arazoaren kasuan prozesuak arinagoa izan beharko luke, gaur eguneko protokoloak oso luzeak baitira.

Ikastetxeek egin dezaketena:

- AIA-ROF dokumentua eskola komunitate osoaren partaidetzarekin eta pedagogi proiektuari lotuta egin.
- AIA-ROF eguneratuta eduki.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- AIA-ROF dokumentuaren atal batzuk arintzeko prozesuak ezarri.
- AIA-ROF dokumentuaren jarraipena egin gaurkotasuna ziurtatzeko.

4.3 - LANGILEEN KUDEAKETA ARLOKO AUTONOMIA

ATALA	BALORAZIO NUMERIKOA				ERANTZUN GABE
	NAHIKOA		HOBETU BEHAR		
	5	4	2	1	
Iraunkortasuna	-	6	15	11	5
Ikastetxeko proiektuetan inplikazioa	-	7	14	9	7
Irakasle berrien profila definitzea	-	3	21	5	8
Langileen ebaluazioa (praktiketako funtzion.)	-	3	12	10	12
Kontratazioa	4	3	8	10	12
Ordezkapenak	1	4	17	11	4
Hutsegiteak	2	4	12	8	11
Arazoen kudeaketa	-	5	9	8	15

Arlo honetako ebaluazio numerikoak argi adierazten du ikastetxeen aldetik autonomia maila garatzeko egiten den eskakizuna.

Gaur egun langileen kudeaketa arloan ezer gutxi egin dezakegu ikastetxe bakoitzeko proiektua garatzeko. Heltzen diren langileak (irakasleak edo beste motatako langileak) ondo egokitzen badira, ikastetxeko proiektuarekin suerte handia izan dugula pentsatzen dugu eta hurrengo ikasturterako plana egiteko orduan berriro "halabeharraren" eremu egongaitzean sartzen gara.

Dena dela, langileen ebaluazioa, kontratazioa edota arazoen kudeaketa aspektuei emandako puntuazioan zalantzak islatzen dira erantzun gabeko fitxa kopuru altua ikusita.

4.3.1 - Iraunkortasuna

- Ikastetxeko proiektua garatzeko antolatzen diren ekimenak burutu ahal izateko dauden zailtasunen artean langileen iraunkortasun eza da nagusienetakoa.

Topaketetan parte hartu dutenen iritzian inplikaturik dagoen langileria mantentzea guztiz garrantzitsua da ikastetxeak jarritako ildoak sendotzeko. Ikastetxeek eten gabeko hobekuntzaren alde egiten duten ahaleginak askotan ez du Administrazioaren aldetik erantzun berbera eta urtero proiektu batzuk pikutara joateko zorian aurkitzen dira.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ikastetxearen Proiektua garatu ahal izateko antolakuntza koherentea egin.
- Administrazioari inplikatu diren langileen berri eman eta etorkizunerako beharrak azaldu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ikastetxeetako proiektuetan inplikatzeko diren langileen egonkortasuna ziurtatzeko formula administratiboak aurkitu.
- Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egin.

4.3.2 - Ikastetxeko proiektuetan inplikazioa

- Ikastetxeko proiektua aurrera eramateko espero dugun inplikazioa bi motatakoa da; lehenengo eta behin Administrazioarena, egokiak diren egoerak bultzatzen eta baliabideak jartzen eta gero langileena ardurak onartzen eta ezinbestekoa den ilusioa jartzen.

Jakin Badakigu Hezkuntza sistemaren barruan mugak daudela (funtzionariadoa...) baina inplikazioa / iraunkortasuna binomioaren lotuak, biak konbinatzeko era aurkitzea eskatzen du. Horrez gainera inplikazioa saritzeko beste formulak ezartzea egokia izan daitekeela uste dugu.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Zuzendaritza Taldeak lana gidatu:
 - Proiektuak bultzatu
 - Informazio argia eta sakona eman
 - Elkarlana bultzatu

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Zuzendaritza Taldeen egonkortasuna lortzeko plana diseinatu eta martxan jarri.
- Iraunkortasuna eta inplikazioa lotzen dituen formula administratiboak aurkitu.
- Inplikazioa saritzeko mota desberdinetako pizgarriak ezarri.

4.3.3 - Irakasle berrien profila definitzea

- Une honetan irakasle berriak izendatzeko dagoen sistemaren ondorioz ikastetxeko proiektuak kalte handia jasan dezake esleipenetan bete behar den lanpostuari buruz inolako informazioa ematen ez delako. Hau ikastetxe publikoetan bakarrik ematen da eta gure ustez Hezkuntza Proiektuaren garapenaren aurka doa. Egoera hau irakasleak ez diren beste langileekin ere ematen da.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Proiektuaren garapena behar diren irakasle eta beste langileen profila definitu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ikastetxeen eskakizunak aztertu eta erantzun egokia emateko bideak aurkitu.
- Lanpostuen esleipenetan bete beharreko lanak buruz informazioa eman.
- Ikasturtearen lehen egunetik ikastetxean plantila osoa egongo dela bermatu.
- Langileak beste enpresen bidez kontratatzen badira ere, lanari dagokion profila dutela bermatu.

4.3.4 - Langileen ebaluazioa

- Topaketa hauetan parte hartu dugunok ahobatez aldarrikatzen dugu ebaluaketaren garrantzia eta beharra autonomia maila gehitzeko, ohitura hori ez dagoela guztiz errotuta ikastetxeetan jakin arren eta etorkizunari begira lan handia daukagula.
- Ebaluazioaz hitz egiterakoan barne eta kanpoko ebaluazio formatiboari buruz ari gara.

Ikastetxeek egin dezaketena:

- Ebaluazioari buruzko hausnarketa egin oinarriazko irizpideak zehazteko.
- Barruko eta kanpoko ebaluazioa egiteko proposamena egin.

- Hobetzeko proposamenak osatu, Administrazioarekin aztertu eta erabakitakoa praktikan jarri.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Hausnarketa bideratzeko tresnak ikastetxeen esku jarri.
- Ebaluaketa egiteko ikastetxeetatik bidaltzen den prozedura aztertu eta zehaztu.
- Kanpo ebaluaketen erabilpena kontrolatu.
- Egiten diren ebaluaketa guztien emaitzak ikastetxe inplikatuak jakinarazi eta hobetzeko proposamena adostu ondoren martxan jartzeko baliabideak jarri.

4.3.5 - Kontratazioa

- Ikastetxeen autonomiari buruz berba egiten dugunean argi daukagu ez garela kontratazioa egiteari buruz ari, hori Administrazioaren betebeharra baita. Baina lehen aipatu bezala, Administrazioak ikastetxeekin duen harremana estutu behar duela uste dugu eta horren ondorioz ikastetxeen beharrak ahalik eta hobetoen asetzeko bideak ireki.
- Ikasturtearen hasieran dagoen beharra hilabeteak pasa ahala sarritan aldatzen da baina baliabide/beharren arteko oreka mantentzeko aukerarik ez dago.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- OOGren barruan ikastetxeko beharrak aztertu , definitu eta Administrazioari eskaera justifikatua egin.
- Ikasturtean zehar gertatzen diren aldaketak Administrazioarekin aztertu eta proposamenak egin.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ikastetxeekin harremana ziurtatzeko prozesura finkoak ezarri.
- Ikastetxeko OOGren onespenerekin doazen eskaerak aztertu eta erabakia adostu.
- Ikasturtean zehar sortzen diren beharrei erantzuna eman.

4.3.6 - Ordezkapenak

- Ordezkapenen kasuan egoera bitxiak aurkitzen ditugu lurraldeen arabera. Bizkaian oso ondo funtzionatzen duen prozedura erabiltzen duten bitartean, Gipuzkoako ikastetxeetako ordezkariak kexu ugari azaltzen dute. Araban beste prozedura erabiltzen dute baina emaitza onekin.
- Ikastetxeetako Zuzendaritza Taldekoei askotan ez zaie sinesgarritasunik adierazten eskaeren aurrean.
- Gaur egun lehen Hezkuntzan ordezeko bat bidaltzeko dagoen tartea (5 egun) ez da egokia ikusten.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ordezkatu behar diren lanpostuen ezaugarriak lehenbailehen Administrazioari komunikatu.
- Langileen "baja" eta "alta" agiriak arin tramitatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Ondo funtzionatzen duten prozedurak orokortu.
- Ikastetxeetako Zuzendaritza aintzatetsi.
- Ordezkapenak kasu guztietan "bajaren" lehen egunetik bete.

4.3.7 - Hutsegiteak

- Langile eta ikasleen eskubideak proportzio berdinean errespetatu behar direla uste dugu, beraz, hutsegiteak kontrolatzeko formula berriak planteatu beharko lirateke.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Hutsegite puntualak (ez bajak) betetzeko prozedura arinak erabiltzea.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Kontrolatzeko formula berriak ezarri.

4.3.8 - Arazoen kudeaketa

- Langileen kudeaketa arazoak sortzen direnean Zuzendaritza Taldea zama ikaragarria jaso beharrean aurkitzen da. Arazoak lehenbailehen argitu eta konpondu behar dira eta horretarako Administrazioaren babesa ezinbestekoa da.
- Ikuskaritzaren gertutasuna asko estimatzen da egoera zail horietatik irtetzeko.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Bizikidetzaren plana eduki.
- Denboraren banaketan beti elkarrizketarako uneak kontenplatu eduki.
- Egoera zailak arin argitu eta konponketarako proposamenak egin.
- Zuhurtziaz jokatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Zuzendaritza Taldeari aholkularitza eta babesa eman.
- Ikuskaritzaren inplikazioa ziurtatu.
- Egoera "bereziei" irtenbide "bereziak" eskaini.

4.4 - KUDEAKETA ARLOKO AUTONOMIA

ATALA	BALORAZIO NUMERIKOA				ERANTZUN GABE
	NAHIKOA		HOBETU BEHAR		
	5	4	2	1	
Erosketak	-	5	15	12	5
Beste ordainketak	-	10	10	1	16
Gestio Programa	-	9	9	1	18
Obrak: txikiak eta handiak	-	7	15	7	8
Jangela	-	5	15	9	8
Garraioa	-	3	12	3	19
Zaintzak	-	2	9	9	17

Puntuazioaren arabera kudeaketa ekonomikoaren alorrean atal konkretu batzuentzako autonomia maila igotzea eskatzen da. Erosketak, obrak eta jangeletako zerbitzuarentzat eskatzen da bereziki autonomia gehiketa hori. Ordainketak eta gestio programen kasuan hobekuntzak eskatzen badira ere, ez dute zertan autonomiarekin lotuta egon beharrik, are gehiago, esan

dezakegu informatika arazoak direla gehienetan esparru honetako oztoporik handienak.

Puntuazioa interpretatzeko unean zerbitzuen multzoan ere zalantzak ikusten ditugu, garraioa eta klase orduz kanpoko zaintzetan hain zuzen ere. Hau ulergarria da bi zerbitzu hauek jangela bezain hedatuak ez daudelako.

4.3.1 - Erosketak

- Ikastetxeetan diru publikoari ez zaiola behar den etekina ateratzen iruditzen zaigu, erosketak hurbileko dendetan eginda, prezio eta zerbitzu hobea izan dezakegula behin baino gehiagotan frogatu den arren, hornitzaile homologatuen zerrenda itxian egin behar ditugu.
- Ikastetxeek beren premia eta lehentasunak zehaztu ondoren beharrak asetzeko materialak erosteko eskubidea eduki beharko lukete eta ez da inondik inora egokia ikusten mobiliarioak edo beste tresnak ikastetxe guztietara bidaltzea behar dituzten ala ez jakin barik.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Inbentarioa eguneratuta eduki.
- Beharrak lehentasunen arabera zerrendatu.
- Inguruko hornitzaileekin harremanak izan.
- Proposamenak egiteko OOGren oniritzia izan.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Produktuak homologatzea, ez hornitzaileak.
- Ezer bidali baino lehen, ikastetxeko Zuzendaritzan galdetu dituzten beharrak eta lehentasunak.
- OOGren oniritziaia duten proposamen justifikatuak onartu.

4.3.2 - Beste ordainketak

- Aplikazio informatikak direla eta ordainketak egiteko unean gastu batzuk justifikatzeko zailtasunak daude eta haiek behar duguna erosteko posibilitatea mugatzen dute. Ez dugu bidezkoa ikusten arlo honetako autonomia informatikaren menpean egotea.
- Programa informatikoak gainera geldoak dira eta dedikatu behar den denbora eta lana gehiegizkoa da.

- Kontrolatzeko bideak beharrezkoak direla uste dugu bai guretzat baita Administrazioarentzat ere baina informatika arloko menpekotasunak hori ere zailtzen du.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ordainketak eguneratuta eta edozein momentutan behar den kontrola pasatzeko prest eduki.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Erosketen justifikazioa egiteko irizpideak hobetu esparru handiagoa hartuz.
- Aplikazio informatiko arinak eta eraginkorrak diseinatu, frogatu eta ezarri.
- Kontrol sistemak ezagutarazi.

4.3.3 - Gestio programa

- Ekonomiatik aparte, ikastetxeetan kudeatu behar diren datuak asko dira eta horretarako dauden programek askotan erreztasunak eman barik oztopoa suposatzen dute.
- Bestalde, kudeaketa hau egiteko ez dago ganorazko formakuntzarik, ikastetxeetan honetaz arduratzen direnak etengabe aldatzen dira eta akatsak egiteko posibilitatea handitzen da.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Ikastetxean arlo honetan trebatzeko beharra ulertu eta horretarako konpromisoa hartzen duten pertsonak izendatu.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Kudeaketarako programa onak diseinatu, frogatu eta ezarri.
- Lan hau egiteko ikastetxe bakoitzean bat baino behiago trebatzen dela ziurtatu eta formakuntza sakona eskainiz.

4.3.4 - Obrak

- Obreen atalean ikastetxeetatik eskatzen den autonomia ezaugarri desberdinetakoa da proiektuaren tamainaren arabera; bereizketa egiten da obra txiki eta handien artean.
- Obra txikietan asko baloratzen da arin egitea eta ikastetxeak aurrekontu berezia edukiz gero egiteko ardura har zezakeelako ustea dago.
- Obra handien kasuan argi dago Hezkuntza Sailaren ardura izan behar dutela eta eskatzen dena zera da, ikastetxearen iritzia eta proposamenak kontuan hartzea proiektuaren fase guztietan.
- Gaur egun errealitatea eta etorkizunerako beharrei begiratu ordez, "minimoetara" begiratuta egiten dituzte proiektuak, epeak oso luzeak dira, beharrak ez dira kontuan hartzen, burokrazian itotzen gara eta askotan konponezinak diren akats handiak egiten dira.
- Hezkuntza Saila eta Udalen arteko koordinazio eza oso kaltegarria da eskolentzako, honegatik edo hagatik ados jartzen ez direlako dituzten betebeharrekin konplitzeko.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Obra txikiak egin behar direnean OOGren onespenerekin proiektu justifikatua eta aurrekontua aurkeztu.
- Onartutako proiektua gauzatu.
- Obra handiak egin behar direnean proposamenak aurkeztu.
- Obreen jarraipena egiteko batzordea eratu.
- Udalarekin harremanak sendotu proiektu komunak aurkeztuz baliabide publikoei etekina ateratzeko.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Eskola Publikari dedikatzen zaion Inbertsioa gehitu.
- Obra txikientzako Ikastetxeko OOGren onspena dituzten proiektua, aurrekontua eta justifikazioa eskatu.
- Obra handiak egiteko:
 - Ikastetxera gerturatu
 - Ikastetxeko iradokizunak aztertu eta kontuan hartu proiektua gauzatzeko
 - Ikastetxearekin adostasunetara heldu (ez inposatu)
- Espazio minimoen dekretua gaur egungo beharretara egokitu: ikasleen neurria, espazio berriak...

- Udalekin harreman estuak izan eta eskolarekiko bakoitzak dituen betebeharrak zehaztu.

4.3.5 - Jangela

- Jangelako tartearak, araudian esaten den bezala, funtzio hezitzailea izango badu, inbertsioa ezinbestekoa da. Langileek profila egokia eduki behar dute, formakuntza jaso eta antolaketa egiteko eta koordinaziorako denbora eman behar zaie.
- Bestalde, zerbitzua ikastetxeko Proiektuaren barruan kokatzen da eta Administrazioak kalitatea hobetze aldera, jantokiko batzordeak egiten dituen iradokizunak kontuan hartu beharko lituzke.
- Hornitzaile homologatu gehiagoren beharra aldarrikatzen dugu. Gaur egun zerbitzu hau arau estuei lotuta dago eta horren barruan ez bada, ikastetxe batek ez du inolako askatasunik behar duena lortzeko.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Jantokiko batzordea eratu eta martxan jarri.
- Jangelari dagozkion iradokizunak beti Ikastetxeko Proiektuaren ildoan barruan aurkeztu Administrazioari.
- Urtero zerbitzuaren ebaluazioa eta hobekuntzarako proposamenak egin.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Hezkuntza Sailak zerbitzu honentzako markatu dituen helburuak lortzeko inbertsio errealak egin.
- Ikastetxe guztiei hornitzaile bat baino gehiagoren artean aukeratzeko eskaintza egin.
- Langileen profila zereginetara egokitu.
- Langileentzako formakuntza eskaini.
- Begiraleen kontratuan koordinazio eta prestakuntzarako denbora kontuan hartu.
- Jantokiko arduradunari dagokion denbora RPTan azaldu.
- Ikastetxeetako jantoki batzordearen iradokizunak aztertu eta Ikastetxeko Proiektuarekin koherenteak badira eta OOGren oniritzia badaukate, onartu.
- Ebaluazioa egin.

4.3.6 - Garraioa

- Garraioak, zerbitzua den aldetik, ikastetxeko ikasleen beharrak asetzea izan behar du helburua, beraz, ezinbestekoa da ikastetxearen proposamenetara ahalik eta gehien hurbiltzea. Une honetan arauak estuegiak dira eta sortzen diren arazo asko horien malgutasunarekin konponduko lirateke.
- Garraio zerbitzuaren antolakuntzak ezin du enpresen komenigarritasuna hartu abiapuntu bezala, baizik eta ikasletxeko ikasleen beharrak.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Garraio zerbitzua erabili behar duten familien eskakizunak jaso.
- Ikastetxeko proposamena osatu eta Administrazioa bidali.
- Proposamena Administrazioaren arduradunekin aztertu eta erabakia adostu.
- Familiei informazio zabala eta argia eman.
- Zerbitzuaren ebaluazioa egin.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Garraio zerbitzua antolatzerakoan ikastetxeen beharrak abiapuntu bezala hartu.
- Ikastetxeen proposamenak jaso eta aztertu.
- Zerbitzuko antolakuntza ikastetxeekin adostu.
- Garraio zerbitzuaren ebaluazioa jaso eta hurrengo antolakuntzan kontuan hartu.

4.3.7 - Zaintzak

- Familia eta lana bateragarri bihurtzeko, Erakundearteko plana osatu da familiei hainbat laguntza eskainiz. Gizarteak duen abiada ikusita ulergarria da batzutan eskolaren ordutegia zabaltzearen beharra. Erakundeen arteko hitzarmenak edo planak arlo hau kontuan hartu behar dutela uste dugu.

Ikastetxeek egin dezaketeena:

- Familien beharrak jasotzeko prozedurak eduki.
- Beharrak ahal den neurrian asetzeko plana osatu eta Administrazioari aurkeztu.
- Ebaluaketa eta proposamenak egin eta Administrazioari bidali.

Administrazioak egin beharko lukeena:

- Erakundeen arteko hitzarmenak bultzatu ikastetxeetako zaintza zerbitzuak finantziatzeko.
- Ikastetxeek aurkezten dituzten proiektuak aztertu.
- Ikastetxe bakoitzarekin plana zehaztu.
- Ikastetxeetatik bidaltzen den ebaluaketa aztertu eta etorkizunerako baltzintzak adostu.

5. - Proposamen orokorrak

XXII. Topaketen aztergaia, "Ikastetxeen autonomia" aukeratzerakoan eremu zaila dela jakin dugu. Ikastetxeek duten autonomia maila handitzeko ezinbestekoa da Administrazioaren makinaria aztunaren berrantolaketa eta Administrazioa bere estutasunetik irtetzen bada autonomiaren ateak ikastetxeei zabalduz, hauen erantzukizuna neurri berean areagotuko da.

Horregatik proposamenak bi norabideetan egiten dira, batzuk ikastetxeei zuzenduta eta besteak Administrazioari.

Dena dela badira atalez-atal egiten diren proposamenak sustatzeko oinarrizko baldintzak:

1. Ikastetxeen autonomiari buruz hitz egitea baliabidetaz hitz egitea da eta elkarrekin ez badoaz alperriko diskurtsoa egitea da.
2. Autonomia ezin dugu ulertu ikastetxearen iritzia eta proposamenik gabe. Ikastetxe bakoitzak duen gaitasuna ikusita autonomoago izateko pausuak proposatu behar ditu. Ezin da inoiz ere ez derrigortu eta planteamentua epe luzera begira egin behar da.
3. Ikastetxeek eskatzen duten autonomia maila Zuzendaritza Taldearen Proiektuarekin erlazionatzen da. Hau holan izanda Administrazioaren ardura da Zuzendaritzetan gaur egun dagoen joera aldatzeko proposamenak egitea.
4. Plantilen egonkortasunak ere garrantzi handia dauka ikastetxeko Hezkuntza Proiektua koherentziaz garatzeko.
5. Eskola komunitate osoaren inplikazioa ziurtatu behar da proiektua garatzeko autonomiaren bidetik abiatu nahi baldin badugu. Proposamen guztiek OOGren oniritzia edukitzea ezinbestekoa jotzen da.
6. Autonomiaren helburua, arestian esan bezala, ikasleen emaitzen hobekuntza bada, ebaluazioa ezinbesteko tresna dugu. Ebaluazio horrek barruko zein kanpokoa izan behar du eta Administrazioak ziurtatu behar du ebaluaketaren ondorioz egin behar diren aldaketak gauzatzen direla.
7. Azkenez, Ikastetxe eta Administrazioaren arteko komunikazioak aldaketa kualitatibo eta kuantitatiboak izan beharko lituzke.

6. - Laburpen gisa

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen V. Tituluan (ikastetxeen autonomiari buruzkoan) adierazten denez, Euskal Eskola Publikoko ikastetxeek bermatuta dute autonomia pedagogikoa, eta antolatze eta kudeatzeko autonomia.

Legea holan, Administrazioari dagokio ikastetxeek duten autonomia maila pixkanaka handitzea, beti ere ikastetxe bakoitzaren erritmoa errezpetatuz eta inoiz ere ez "sari" bezala kontsideratuz.

Bestalde, autonomia gehiago onartzea ez da dohainekoa ikastetxeentzat, lana inplikazio mailarekin batera gehituko da, arriskuetatik alde egiteko zuhur jokatu beharko da eta eskola komunitate osoaren erantzukizuna handituko da.

Baina Eskola Publikoa ohituta dago erronka handiei aurre egiten eta zeregin berrietan duen energia lana eta ilusio osoa jartzen. Bere momentuan euskalduntze prozesuarekin edota aniztasunaren trataerarekin egin zuen bezala, Eskolak apostu berri hau berea egitearekin batera Hezkuntza Sailari alde gogor jokatzeko eskaera egiten dio.

SAREAN Elkarteak ahalegin guztiak egingo ditu ikastetxe publikoen etengabeko hobekuntzarako planteatzen diren ekimen guztietan parte hartzeko.

7. - Eranskinak

XVIII. TOPAKETETAKO EMAITZAK

AUTONOMIA - 1 taldea

Ekonomi autonomia:

- Arlo honetan autonomia gehiago eskatzen da; batez ere erosketak egiteko orduan, ikastetxeek lortzen dituzten prezioak hobeak direlako eta gainera bakoitzaren beharrei erantzun egokiagoa emanten zaielako.
- Ondo ikusten da obra txikien kudeaketa egitea baina obra handitan honako eskaerak egiten dira:
 - Eskoletan irakasle eta gurasoen artean osatutako batzordea eratzea obraren jarraipena egiteko.
 - Ikastetxearen iritzia eta planteatzen diren beharrak kontuan artesa.
 - Protokolo bat egitea obrarekin jarraitu beharreko pausoak ezagutzeko.
 - Obrak noiz diren txiki edo handi zehaztea, bakoitzen ezaugarriak definituz.
- Administrazioetik kanpoko diru iturriak edukitzea ez da egokia ikusten, eskolen arteko lehia ez bultzatzeko.

Antolaketarako autonomia:

- Puntu honetan autonomia handitzeko beharra ere ikusten da.; praktikan ikasleen taldekatze sistema desberdinak eta beste antolakuntza bereziak egiten dira baina Administrazioaren aldetik inizatibak moztzen dira, konfiantza falta nabaria igertzen da.
- Zerbitzuen arloko autonomiak zama handia jartzen du Zuzendaritza Taldean baina zerbitzu hobeak eskeini daitezke. Puntu honetan oso garrantzitsuak dira begiraleak, jantokietan, autobusetan eta. Eta kolektibo honek prestakuntza berezia behar duela ikusten da. Era berean, dauzkaten lan baldintza txarrak eragozpen bat dela uste dugu.

AUTONOMIA - 2 taldea

Taldearen iritzian autonomia oso eremu zabala da, eta eskola publikoaren "ekitate" zaindu behar da.

Zenbait arlotan beldurra azaltzen da autonomia eskatzerakoan eta muga baten beharra ikusten da baina era berean bideak arakatzeko beldurrik ez izateko mezua ere bidaltzen da taldearen partaide batzuegandik.

Proiektuak hartzen dira abiapuntu bezala autonomia eskatzeko eta horien ebaluzioa ezinbestekoa azaltzen da.

Oztoporik handienak baliabidea ekonomikoak eta denbora gehiagoren beharra dira.

Ekonomi autonomia

- Produktuak homologatu behar dira baina hornitzaileak ez
- Espazioak arautzen dituen dekretu berri baten beharra dago.

Antolaketa arako autonomia

- Hezkuntza komunitatearen eskubideak eta eskubide pertsonalak uztartu behar dira eta hemen sindikatuen lana oso garrantzitsua da.
- Dauden esperientziak kontuan hartuz ikastetxeak zerbitzuak kudeatzen baditu, askoz hobeak dira baina honek eskatzen du administrazio arako denbora gehiago; aurrezten den dirua eskolan geratzea proposatzene da.

Langileen kudeaketa arako autonomia

- Proiektuak behar bezala garatzeko irakasleen egonkortasuna denbora batez ziurtatzeko posibilitatea eskatzen da. Puntu honetan eztabaida luzea egin da eta irakasleak kontratatzeko posibilitateak ekar ditzakeen onurak aipatu dira, partaide batzuen aldetik proposamen hau eginez:

- Ikastetxeak (Z. Taldeak edo B. Iraunkorrak) bi edo hiru irakasle kontratatzeko aukera edukitzea

Beste hainbat partaiden aldetik ez da kontratazioaren posibilitatea ondo ikusi eta arlo honetan autonomia gehitzeko puntu horretara heldu barik, tarteko bideak planteatu dira:

- Ordezkapenak eskatzen direnean Z. Taldekoek Administrazioaren aurrean fidagarritasun osoa edukitzea.
- Proiektuetan parte hartzen duen jendeak hala eskatzen badu, bertan mantentzeko posibilitatea edukitzea

Langileen alorrean gaixo kronikoen kasua azaldu da eta holako kasuetan tratamendu berezia eskatzen da.

Gaur egun Unibertsitate mailan departamentuek langile-boltsa baten barruan aukeratzeko gaitasuna daukatela aipatu da eta begi onez ikusten da formula bat aurkitzea Lehen eta Haur Hezkuntzako ikastetxeek esparru honetan beren autonomia heda dezaten ere.

Momentu honetan eskola txikiek ebaluazioaren ondoren klaustroaren parte bat (% 50 baino gutxiago) mantentzeko posibilitatea daukate.

Eztabaidaren barruan langileen arloan autonomia mailaren bat edukitzeko dugun beharrari erantzuna emateko ondoko proposamenak egin dira:

- Adjudikazioetan bertan eskola bakoitzeko proiektuak agertzea, lanpostua jakinaren gainean hartzeko.
- Autonomia edukitzea eskubidea da eta ez da sari bezala erabili behar.
- Ebaluazio sistema ona eratu eta zabaldu behar da autonomiari lotuta

- Langile ez-irakasleak ikastetxearen beharren arabera perfila edukitzea ere eta ez oraingo moduan zerrenda bakar batetan kokatuta.

Pedagogi autonomia

- Onartutako proiektuak garatzeko baliabideak izango ditugula jakitea beharrezkoa ikusten da.
- Aberasgarria ikusten da Unibertsitate eta Ikastetxeen arteko elkarlana eta horretarako hitzarmenak egiteko posibilitatea ikusten da taldean egondako Unibertsitateko irakasleen ustez.
- Magisteritzako ikasleak borondatezko praktikak egiteko posibilitatea daukate proiektu berezietan lan egiteko.

AZPIEGITURA: Mantenimendu eta obrak

❖ Dekretuaren azterketa

Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikuntzak egiteko edo berriztatzeko gutxieneko baldintzak zehazten dituzten bi dekretuak aztertu dira (BOEko 1004/1991 eta 1537/2003 errege dekretuak)

Taldean sortutako proposamenak:

Dekretuak 1991an eta 2003an atera ziren eta nahiz eta 12 urte pasa bi dekretuen artean aldaketa gutxi antzematen da.

Hemengo ezaugarriak kontuan izanda, hau da. klima, Hezkuntza Proiektuak, hemen egiten diren esperientziak e.a Hezkuntza Sailak gutxieneko baldintzak arautzen duen dekretu bat atera beharko luke. Oraingoa Madrilen ateratakoa da.

Ondoren aipatuko ditugu ikusten ditugun hutsuneak:

- Tutoretzak eta bikoizketarako gela nahiko ez dago, eta ezartzen dituzten neurriak oso eskasak dira.
- Aterpea ez da inon ere kontenplazten, eta bizi garen tokian bizi izanda beharrezkoa ikusten da.
- Liburutegiaren tamaina , dekretuaren arabera, oso txikia da. Handiagoa izatea eskatzen da.
- Gimnasioa edo heziketa fisikorako espazioa kontenplazterakoan eskolatako lerro kopurua ez da kontuan izaten eta horrela izan dadin eskatzen da.
- Lehen Hezkuntzan gimnasioa egon beharko litzateke eta ez " toki estali" bat.
- Zuzendaritzarako bulegoan ez da neurririk ezartzen, baina gure ustez tamaina egoki eta zabal bat izan beharko luke, hor egiten den lana kontuan izaten badugu: zuzendaritza taldeko bilerak, gurasoekin egiten diren bilerak administrazioko beste batzuekin egiten direnak, ikuskaria, Udaletako jendea, aurrematrikula garaian gurasoekin bildu, e-a.

- Ingelesa gela ez da agertzen. Eskolatan bitartekoak eta errekurtsioak baditugu arlo hau aurrera eramateko, baina ez dago espazio fisikorik.
- Material biltegia
- Altzarien biltegia
- Belarguneak

❖ *Obrak*

Protokoloa- Obra bat burutu baino lehen ondorengo pausuak kontuan izatea eskatzen dugu: ikastetxeekin kontaktzea, eskolaren iritziak bere garrantzia izatea. Jakin beharko genuke administrazioetako obra plana, bai Udalena eta ba Hezkuntza sailarena. Modu horretan jakingo genuke ikastetxe bakoitzari noiz dagokion obra bat aurrera eramatea.

Hezkuntza sailak garbi adierazi behar du zein den prozedura, epeak, gestioak, e.a. ezta ez du gelditu behar zuzendaritzaren "pelmadaren" baitan.

Hau da Hezkuntza Sailari eskatzen zaiona:

- Garbi adierazi behar du protokoloa eta prozedurak zeintzuk diren.
- Informazioa argi azaldu behar dute.
- Inplikaturik dauden guztiekin (udala, eskola) kontaktzea proiektuen onarpenerako.
- Zuzendarien oniritzia kontuan hartu beharreko zerbait litzateke obra bat ontzat eta bukatutzat emateko.

Ikuskaritza zerbitzu bat beharko litzateke obrak egiteko unean eta obrak bukatu ondorenerako.

❖ *Mantenimendua*

- Teorian argi dago ikastetxeen mantenimendua nori dagokion, baina praktikan zailtasunak daude. Batzuentzat mantenimendua dena beste batzuentzat berriz obra da.
- Hezkuntza Sailak presioa egin beharko luke zenbait udalengan ikastetxeen mantenimendua egokia izan dadin. Izan ere, ikastetxe publiko askoren egoera tamalgarria da eta eskaintzen duen irudi penagarria. Eta mantenimendua egokia ez izateagatik obra asko egin behar dira.
- Atezainen figura eta perfila ez dago erabat definitua eskola guztietan. Zenbait eskolek atezaina dute, beste batzuek mantenimendurako arduraduna eta badaude zenbait ikastetxe non ez duten inor lan hauetarako.

Udalei eskatzen diegu definitzeko pertsona horien perfila eta bere betebeharrak zeintzuk diren. Eta orokorrean ikastetxe gehienak mantenimendurako pertsona bat behar dute, eta ez administrazioetan dagoen atezain moduko bat.

❖ *Kudeaketa ekonomikoa*

Gaur egun daukagun sistema neurri handi baten egokia ikusten da baina badaude hobetu beharreko puntuak:

- Dagoen homologazio sistemak autonomia mugatzen du. Hornitzaileak homologatu barik, produktuak homologatzea proposatzen da.
- Administrazioak moduluak kalkulatzeko erabiltzen dituen parametroak ezagutu behar ditugu. Jantokiko partidatan ere.
- Kudeaketan konplexotasuna ikusten da:
 - Eskolan ikasturtea da oinarrizko esparrua baina kontuak urte naturalaren arabera egin behar dira; honek konplexotasuna areagotzen du.
 - EGA-AKA gaixotzen bada, gehienetan ez dago inor lan hori egiteko prestatuta. Lan honetarako formakuntza zabaltea proposatzen da.
- Ikastetxe askotan kartilla berezia eramaten da (Guraso Elkartekoekin edo) hainbat kasutan kudeaketa errezteko eta lasaiago egoteko.
- Eraikuntzen arabera modulo fijoak erabiltzea proposatzen da; ez da berdina eraikuntza batetan edo bitan (edo hitutan) egotea.
- Haur Hezkuntzak tratamendu berezia behar duela uste dugu, adibidez Hezkuntza Bereziko modulua.
- Behar berriak sortu dira baina dotaziotan IPC bakarri hartzen da kontuan. Gaur egun eskoletan erantzuna eman behar zaio hainbat berrikuntzari: musika, Ingles, liburutegia, matrikula garaiko propaganda, komunikazioak, jantokia...

Ikastetxeetara heltzen den dirua zelan gastatu erabakitzeko ez dago iritzi bakarra eta lekuan lekuko sistema desberdinak aipatu dira. Ekonomi Batzordea ikastetxe gehienetan esistitu eta funtzionatzen duen batzordea da.

XXII. Topaketak - PRENTSA OHARRA

SAREAN Elkarteak martxoaren 22 eta 23an Donostiako Miramar Jauregian XXII. TOPAKETAK burutu ditu. SAREANek EAeko Haur eta Lehen Hezkuntzako 163 ikastetxe publiko biltzen ditu eta beren helburu nagusiak, bai ikastetxeen artean baita Administrazioarekin ere, harremanak eta elkarlana bultzatzea dira, nagusiki ikastetxeen eta sistemaren antolakuntza arloari dagokionean.

Jardunaldi hauetan nagusiki zuzendaritza esparruan dabilzan kideek hartu dute parte, baina beste Topaketetan bezala, guraso, sindikatu, unibertsitateko irakasle eta Hezkuntza Administrazioako kideen ekarpenak ere jaso ahal izan ditugu.

*Jardunaldietako aztergai nagusia ikastetxeen autonomia izan da. Gaur egun gure erkidegoan indarrean dagoen oinarrizko legeriak, Euskal Eskola Publikoaren Legea barne, lau autonomia esparru ikusten ditu ikastetxeei aitortu beharrekoak: **pedagogikoa, antolakuntzako, ekonomikoa eta langileen kudeaketari** dagokiona. Jardunaldietako parte hartzaileen iritziz, arlo bakoitzean eman den garapen maila desberdina izan bada ere, **guztietan dago oraindik aurreratu beharra.***

Autonomiaren aukerak eta arriskuak

Autonomiak aukera interesgarriak zabaltzen ditu, baina baditu arriskuak ere.

Horrela zioen Joan Estruch jaunak, Bartzelona IES Balmes-eko katedraduna, bere agerraldian. Bertan aurkezpen interesgarria egin zuen, non, Europan dauden ikastetxe gobernu eredu azterketa egitearekin batera, hiru autonomia mota bereizi zituen: neoliberala, korporatibista eta integratzailea.



Eredu neoliberala herrialde anglosaxoietan oso errotua dago. Merkatu askeko kulturaren oinarritzen da, ikastetxeak elkarren arteko lehian jarriz. Bertan ikastetxeek lortutako emaitzen arabera jasotzen dituzte baliabideak eta gainera, emaitza hauek publikoak egiten dira. Horrela, egoera eta aukera hobek dituzten ikastetxeak dira laguntza gehien jasotzen dutenak. Aitzitik, desabantaila sozial handienetatik abiatzen direnek jasotzen dute hobekuntzarako laguntzarik txikiena, berezko desberdintasunak areagotuz.

Eredu korporatibista herrialde latinoetan nagusitzen dena da. Gurean ere horretan ginatete. Bere arriskuak bat ikastetxeen autonomia langileen zerbitzura jartzea da, hezkuntza proiektuaren garapena eta ikasle, familia eta gizartearen beharrei erantzutera bideratu beharrean.

Gainera, badu beste eragozpen bat: ikastetxeek daukaten autonomia pedagogikoa ez dator bat baliabideen eta langileen kudeaketarekin. Lehena dekretuz deszentralizatzen da eta bestea

zentralizaturik eta ikastetxe guztiak irizpide berberetzat tratatuz erabakitzen da, tokian tokiko behar eta egoera bereziak kontuan izan gabe. Honek guztiak ikastetxeen aurrerapenetan ezintasunak eragiten ditu eta batzuen eta besteen arteko desorekak.

Eredu integratzaileak, Eskandinavian eta Holandan adibidez, asko zaintzen ditu neurri konpentsatzaileak. Hezkuntza politikak behar handiena duten ikastetxeei ematen diete gehien, gizarte kohesioa eta ekitatea zainduz. Gainera, datu gisa, kontuan hartzekoa da nazio arteko neurketetan, PISA adibidez, herrialde hauek direla emaitzarik onenak lortzen dituztenak. Jardunaldietan bildutakoen iritziz, eredu **hau litzateke jarraitu beharrekoa**.

Nolako autonomia nahi dugu eta zertarako

Sareanen iritziz, **autonomia ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektua modu eraginkorragoan garatzeko aukera hobetzen duen tresna da**. Beste era batera esanda, autonomiaren helburua oro har gizarte osoari eta partikulari ikasle eta familien beharrei hobeto erantzutea izan behar du.

Edonola ere, autonomiaren eragina mugatua da eta ez da berez helburutzat hartzen. Honek beste eragile askorekin uztartuta ahalbidetuko du ikastetxe proiektuan aurrakusten diren emaitzen hobekuntza. Ildo horretatik, garrantzi handia ematen zaio **hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eta inplikazioari**; irakasle, ez-irakasle eta familien aldetik nor bere konpromisoa betetzeko aukera izatea eta horretan inplikatzeko ezinbestekoa da.

Era berean, Hezkuntza **Administrazioak zaindu behar du ikastetxe bakoitzaren beharrak zeintzuk diren eta zein den bere heldutasun maila autonomiaren garapena sustatzerakoan**. Baina beti ere, kontuan izanda, **autonomia ikastetxe orori onartu behar zaion eskubidea dela**, bere hezkuntza proiektua eraginkortasunez garatzeko. Eta hauekin denekin batera, ezin da ahaztu ikastetxe sare bat osatzen dugula eta ikuspegi hori zaindu beharra dagoela. Ikastetxe bakoitzaren etengabeko hobekuntzarekin batera **sare publiko osoaren garapena ahalbidetu behar dela**, herritar guztien beharrei erantzuteko alegia.

Hezkuntza Sailaren egitasmoarenganako jarrera kritikoa

Jardunaldien itxiera ekitaldian Patxi Olabarria jaunak, Hezkuntza Saileko Ikastetxeen Zuzendariak, departamentu honek ikastetxeetan autonomia bultzatzeko daukan egitasmoaren zirriborroa aurkeztu zuen. Egitasmoa oraindik definitiboa ez bada ere, kezka eta zalantza ugari eragin zituen, izan ere, ikastetxe guztientzat hain beharrezkotzat jotzen den tresna honen garapenera iristeko, hau da, **Hezkuntza Sailarekin hitzartutako autonomia-proiektua garatu ahal izateko, ezinbesteko aurrealdintza jartzen du "ikastetxearen kalitatea kudeatzeko sistema" ezarrita izanaren ziurtagiria**. Beste era batera esanda, autonomia eta kalitatea lotzen ditu derrigorrez.

Adostasun handia dago ikastetxeen antolakuntzan eta kontrolean aurreratu beharra dagoela. Baina horrelako sistema bat autonomia garatzeko baldintza bezala jartzen bada, arrisku nabarmena dauka kudeaketa proiektua laguntzarako tresna izan beharrean helburu bihurtzea eta ikastetxe guztiak autonomia-proiektua garatzeko aukera berdinak ez izatea.

Horretaz gain, kontuan izan behar da, beren dohainak inola ere gutxietsi gabe, oso zentro gutxi direla sare publikoan "kalitatea kudeatzeko sistema" konkretu baten bitartez ari direnak beren hobekuntzan, are gutxiago Haur eta Lehen Hezkuntzan. Beraz, **oso ikastetxe gutxi izango lukete beren autonomia garatzeko aukera.**

Bestalde, **Sailak autonomia proiektuen ebaluazioak ematen dituen emaitzak publikizatzea aurriztatu du.** Asmo honek ere, kezka sortzen du, **ikastetxeen arteko desberdintasunak areagotzeko tresna bihurtu baitaiteke.** Ebaluazioa beharrezkoa da, baina beti ere eragin formatiboa izan behar du, etengabeko hobekuntzara bideratua eta ez lehia areagotzera. Ikastetxe bakoitzak gehitzen duen balioa neurtzerakoan, eskola-emaitzez gain ikasleen ezaugarriak eta ikastetxeak dauzkan baliabideak ere kontuan izan behar dira.

Gainera, **honen guztiaren azpian argitu beharreko beste eztabaida bat dago: Zer da "kalitatea"? Zein adierazle hartu behar dira kontuan ikastetxe batek kalitatea duela esateko?** Esan al daiteke ziurtagiriren bat ematen duen kudeaketa sistemaren bat ezarrita ez duen ikastetxeak ez duela etengabeko hobekuntzarik eta, ondorioz, ez duela autonomia proiektu bat garatzeko ahalmenik?

Beraz, **Sareanek eskaera zehatz bat egiten dio une honetan Hezkuntza Sailari: "ikastetxearen kalitatea kudeatzeko sistema" ezarrita izatea ez dadila ezinbesteko baldintza izan autonomia maila areagotu ahal izateko.**

Sare publikoko ikastetxeak egunerokoan konpromiso handiz eta egoki ari dira ikasle, familia eta gizartearen beharrei erantzuten eta hauek horretaz jabetzen dira. Horrela egiaztatzen da Jaurlearitzak berak azken urteetan egin dituen ikerketa soziometrikoetan familien asebetzeari eta hezkuntza sarren aukera-nahiei dagokionean. Horretan dihardugu eta jarraituko dugu etorkizunean ere.

SAREAN Elkarte
2007ko martxoa.